

FERMIN ETXEGOIEN

# TOTELAK

n a r r a t i b a •

ereina



# TOTELAK

*Narratiba, 135*

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

---

*Liburu honek Eusko Jaurkitzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2021eko urrian*

Azalaren diseinua:  
Erein

Azaleko irudia:  
Jaione Dagdrømmer

Maketazioa:  
Erein

© Fermin Etxegoien

© EREIN. Donostia 2021

ISBN: 978-84-9109-772-3

L. G.: D 1153-2021

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [edizioak@itxaropena.net](mailto:edizioak@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

Fermin Etxegoien

TOTELAK



erein



Bizitza forma bat defendatzea da.  
HÖLDERLIN

*Jon eta Loretozentzat,  
maitasun eta esker onez*





—Espainolak?

Emakume ilehoriak galdera bota zien irribarre zabal baten barrutik. Esku batekin bizikletari heltzen ari zitzaion eta bestearekin senarra zirudienari. Kirola egiteko moduan jantzita zeuden biak. Emakumea txiki bezain proportzionatua ageri zen eta kotoizko konjunto zuri estua zeraman. Zapatila mikro-zulodunak, galtza labur elastikoak, besoak bistan uzten zizkion niki pegatua eta lepo gainean anorak zuri ilunagoa, zurruntasunik gabe tolestua. Zeruan hodei bakan eta azkar batzuk iragartzen ari ziren anorakak, balizko euriari lurra hartzeko gonbita eginez bezala.

Hirurogei urte inguruan ibiliko zen emakumea, ondoan zuen gizona bezala, lehen itxura batean bikotekidea, zeinaren arropa guztiak, emakumearen konjuntoaren oso desberdinak ez izanagatik, haien artean bat eginago ageri baitziren, tonalitate kaki edo arre batez, kamuflaje, ehiza edo militar kontuak edonoren gogora ekartzeko eran.

Bikotearen atzean, Sils herriko kale nagusia, bertakoenak ez ziren autoei debekatua.

Etxe tradizional sendoak lerrokatzen ziren ezker-eskuin, hamabost eta hamaseigarren mendekoak. Finki margoturiko

pareta, leiho, balkoi eta ateetako inguru erliebedunen bitartez, naturaren gaineko garaipen sofistikatu batez mintzatzen ziren etxetzarrok.

Espainolak ote ziren galdera jaso zuen bikote bidaiari euskalduna auto geldiaren barruan zegoen, leihatilak jaitsita, eta espainolez emakume ilehoriak botatako galdera inkomodo bezain ohiko bilakatutakoaren aurrean –astebete lehenago atzerrian bidaiatzeari ekin ziotenetik–, bikote bidaiari euskaldunak ezingo zuen ez entzunarena egin, denentzako deskortesia desatseginean erori gabe.

Emakume ilehori hura ezezagun hutsa izateak ez baitziuten bidaiariak salbuesten, bikote euskaldunaren protokolo betebeharren arabera, emakumeak bidaiariei, haien autoaren matrikulari erreparatu ostean, edukazioz eta irribarrez eginiko galderari –«espainolak al zarete?»– modu berean edo, batik bat, antzekoan erantzuteaz.

Une izoztu bat behar izan zuen bikoteak, autoaren barruko intimitate erdi-itxiaz baliaturik, erantzuna zehaztu aurretik.

a-. Bai (besterik gabe).

b-. Bai, euskaldunak gara (*Sí, somos vascos*, itzulpenean).

c-. Ez (besterik gabe).

d-. Ez, euskaldunak gara (*No, somos vascos*, itzulpenean).

Zera hartu behar baitzen kontuan: bat, litekeena zela bertakoa izatea –suitszarra, beraz– mintzoz, halaber, guztiz espainola ematen zuen emakume galdetzaile ilehori, eta bi, Suitzako zein gunetan zeuden bidaiariak une hartan, Goi Engiadina haranean.

Modu instintiboan erne jar zitezen biak ingurune arrotz haren aurrean, bidaiari euskaldunek bazuten nahikoa

eta sobera –azpimarratu beharrik al dago?– euskaldun izate hutsarekin, «bestelakoenganako» euskaldun orok jaso behar izan duen heziketa konduktuala gogoan hartuta. Horretarako ere, han zeuden bidaiari euskaldun biak Europa erdiguneko (hezur-muineko) goi lur haietaraino joanak, halako ariketa inpubiko zein autokontziente baten bila, opor egun haiek, hasteko, modu hedonistan igarotzeari batere uko egin gabe. Adibidez, ostaturik ez merkeenak hartuta, izan bazena, Suitzan egonik, bidaiarien jarrera harroaren adierazgarri, automatikoki kanpo eta behe-behean –zentzu zinez literalean– utziko zituelako txiro edo «ez-pudiente» gehienak, denak ez esatearren.

Gutziz at, Alpeetako teilatu-gain edo sabai praktikoki *uni* –zeinen bortitza eman behar zuen ondorengo hitzak– *razial* hartatik, Sils herriaren ateetara ailegatu orduko, ingurune arkitektoniko zein paisajistikoaren egundokotasun begi-bistakoak bikote bidaiari euskaldunari adierazi legez, modu sotilki errefraktarioan.

Silsera autoz sartzea eragozten zien kanpoko trafikorako hesi errealaz gain, han, ezkutuan, bazirelakoan –egon behar zutelakoan– beste zenbait klausula edo betebeharrak ilun eta are mefistofeliko, hango indigenek bertako jainkoen bultzada telurikoak nahiz kanpoko gizakien espekulaziorako senak haien alde lerrokatu ostean, Suitza horrela defini liteke eta.

Auto-babes faustiar ikusezinen bat Silsen, helvetiar status *giza gaindikoari* eutsiko bazioten bertako biztanleek, ageriko babes gisa inguruetakoa mendiak oso altu eta herrietako ostatuak oso garesti edukitzeaz landa.

Ez zen-eta batere baztertzeakoa, Alpeetako goi-lur ez emankor haietan, historian beste hainbatetan bezala, zera

bete izana, halako zibilizazio material goren bat arrakasta handiz antolatu ahal izanaren ordainetan: odol purutasunaren auto-profezia, muturreko zibismoa eta xenofobia bikainki uztartu ohi dituen.

Guztiarekin, bidaiari euskaldun biei ondo zehazteko modukoa iruditu zitzaien emakume ilehoriari eskaini beharreko erantzuna.

Amildegiaeren ertzean eta estintziorako bidean ageri den kultura minorizatu bateko ale txiki ezdeusak, bidaiari euskaldun biak (bat) nahiz eta turista dabilzan (bi), non, eta Goi Engiadina haranean, mendebaldeko eredu sozioekonomikoaz baliatzen den arraza gehiengo elitistaren ordezkari oso-oso kualifikatuen gisan.

«Euskal Herrikoak gara», erantzun zion gizon gidariak («Somos del País Vasco»).

Aurrez «bai» ala «ez» zehaztu gabe. Antza, erantzun sinpleen eta ez-konfliktiboena. Halere, gizonari asertibitatez mintzatzea eskatu ziona, askoz naturalago aterako zitzaio-lako galdera egina zegoen modu berean erantzutea, aurrez «bai» ala «ez» zehaztuta.

Izan ere, ez-elegantea zeritzon gizonak zeharkako formulak erabiltzeari, politikarien antzera, zerbait ezkutatu nahi duen norbaiten jarrera iheskor nahiz harroa zelakoan.

Anbigua izaten ari zen, are desatsegina, pentsatu zuen gizonak, emakume galdetzaileari bere buruaz eskaintzen ari zitzaion lehen itxura, sendotasuna agertu nahi lukeen kol-dar batena bezalakoa.

Esperientziak argi ziotson, baina, lehen erantzuna modu asertiboan eman ezean, orduan bai, berehala, aurki zitekeela gizona ahul eta babesgabe, «tira, espainola zara, bai

ala ez?» estiloko itaunketa erasokorrari atea parez pare zabaldua. Euskal Herritik irteteen usu gertatzen diren identitateen arteko dema edo tira-bira moduko horietan, ezagunenez, apal jokatzen duen euskalduna –kontu labainkorra dela inplizituki onartuz– bere burua berehala jartzen ari delako mezu amorragarriki tinko eta agresiboak botako dizkioten litigante –are usuago– ez euskaldunen jomugan.

*Nik ere nahi nituzke  
halako segurtasunak eduki.*

Asertibitatez erantzutea, edozer erantzunda ere, gizon bidaiari euskaldunak erabaki zuena, Ruper Ordorikaren kantu entzutetsua gogoan.

Erantzunak ez zuen inongo kontra-galdera desatseginik eragin, ordea, emakume ilehoriaren ondorengo erantzun lasaia baizik.

—Hara, ni Kataluniakoa naiz, Bartzelonakoa, baina hona ezkondata nago duela zortzi urte... –eta senarra zirudiena seinالاتu zion, naruz gizon beltzaran maskala, kopeta gainean burusoildua eta bizar txuri-beltz laburrekoa. Haren begi piztuetan, bere burua aurkeztu berri zuen emakumearena baino irribarre zabalagoa marrazten ari zen.

—Ongi etorri nire herrira –mintzatu zen gizona, halaber, espainolez.

Engiadina eskualdeko herririk altuena, Sils.

Bidaiari euskaldunak Suitzara Lago di Como famatuaren aldetik sartu zirenez gero, Maloja Pass mendatearen ondorengo lehen herria aurkitu zuten Sils. Oso altu dago, 1.800 metro inguru, Pirinioetako garaiak baino berrehun

bat metro gorago –eski estazioetako resortak izan ezik–. Oso kokagune hotz eta elurtsuan ia urteko hilabete guztietan.

Uztaila zen, baina, salbuespen aroa.

Airean zebilen usaina, hesirik gabe espazio biribilean hedatua, emetasunaz mintzo zitzaion gizon gidariari.

Goi-lautada perfektu baten erdian dago-eta Sils, atzealdean mendi-hesi tinko eta garaiak ageri badira ere, zero goietara altxaturiko olatu petrifikatuen antzera, denak desberdin, nahiz eta kolore gune berdintsuen arabera estratifikaturik. Lehen solairuko konifera ilun eta trinkoen gainean, belardi biluzi argitsuagoak, tarteka elurgune txiki bakan eta gogortuek zurituta. Gorago, eta zeruaren kontra mendi bakoitzaren silueta zehatz nabarmenduz, haitzezko gandor eta ertz katedralizioak, Silsetik urruti ez, baina ezta etxe multzoen gainean grabitate zapaltzailez eroriz ere.

Antzera beharko zuen haranean apur bat beherago zegoen St. Moritz ezin famatuagoak, bertako jauregiak udako lore alpinoen artean goxoki etzanda bezala.

Silsetik St. Moritzera bidean, laku ur opalozkoak.

Bikote bidaiari euskaldunak elkarri begiratu, eta autotik jaisteko keinua egin zion gizon gidariak emakume kopilotuari. Berrogeita hamar urte ingurukoak ziren biak. Emakumeak ile beltz laburra zeraman eta mehea zen figuraz. Gizona potoloagoa zen, eta alboetara zabaldutako sabel puztua antzematen zitzaion alkandoraren azpian; ilea zuri-zuria zeukan, aukeran luzeegia, baita apur bat tximaduna ere.

Silsera autoz sartzea ezinezko bilakatzen zuen langaren aurrean agertu ziren gizon eta emakume euskaldunak, beraz. Langari atxikia, debekuaren berri ematen zuen karte-la zegoen irakurgai, bi hizkuntzatan: aleman ulertezinean

–bidaiarientzat– eta erromantxera ulerterrazean –bidaia-  
rientzat hori ere, kontuan izanda bidaiari euskaldun biek  
bazekitela espainola primeran.

Suitzako Grisoiak kantoiko mintzaira latindar zaharra  
dugu-eta «rumantsch» delako hizkuntza hori, Italiako Do-  
lomitetan «ladino» deitzen duten berbera. Kontuz, baina,  
bigarren izen horrekin, Hego Tiroleko ladinoa ez delako  
nahastu behar, inolaz ere, Espainiako sefardi judutarrek min-  
tzatzen zuten/dutenarekin, jatorri komunaz haratago –lati-  
na– ez baitaukate senidetasun geografikorik.

Alemana baino lehenagotik daude erromantxera zein  
ladino hizkuntza bikiak Alpeen erdi-erdian, garai zaharre-  
tan oso-oso zabaldurik, bai Suitzako mendialde ia osoan,  
bai egun Italia barruan den Hego Tirolen, eta baita –horren  
arrasto bizirik jada ez dagoen arren, toponimiaz aparte–  
Austriako parte modura antzinatik eremu erabat germaniar  
gisa ezagutua izan den Tirol eskualde zentrolean ere (Inns-  
bruck inguruak eta).

Hiru gune geografiko zabal horiek, gaur egun, toki ezi-  
nago germaniarrak diruditen arren, ezta?

Ba, mendeetan zehar, latinetik datozen erromantxera/  
ladino mintzairak izan ziren nagusi bertan, gerora alemana  
–handik mila urtera!– zabaldu aurretik.

Italia barruan egun den Hego Tirol eskualde itxuraz oso  
germaniarrak, adibidez: Austria-Hungariako inperio barruan  
egona 1918ra arte, eta gero, inperioaren suntsiketaren on-  
dorioz, italiar Estatuaren parte bilakatua.

Bertan ditugu Dolomita famatuak.

Dolomitetako haitz-dorre durduzagarrion arteko hara-  
netan, ordea, askoz lehenago hitz egin zen ladino hizkuntza

alemana baino. Esate baterako, Reinhold Messner –deitura alemaneko nahiz herritartasun italiarreko– inoizko alpinistarik famatuena den herria: Brixen edo Bressanone.

Wikipediaren arabera, Messnerren izen itxuraz alemaneko sorteria den Brixenen, nahiz Bressanone Italiako Estatu barruko hirian, ehuneko bat besterik ez da ladinoz mintzatzen egun; ehuneko 27 italieraz mintzatzen da, eta ehuneko 70 alemanez.

Hona hemen bitxiena, Brixen izena ez baita dirudien bezain alemana... eta ezta jatorri erromantzekoa ere, baizik eta, txa-txa-txaan... jatorri zeltakoa!

Ladinoa baino askoz ere lehenago (!) Alpeetan mintzatzen ziren hizkuntza zeltikoen arrastoa delako Brixen.

Izan ere, Alpeetako hizkuntza are zaharragoak zeltikoak izan ziren, erromantxera/ladino mintzairak zabaldu aurretik. Irlandako gaelikoaren familiako senide-hizkuntzak, bezaraz, Mediterraneo ertzean ere erruz hitz egiten zirenak!

Iberian ere gertatu zen. Numantzia hiriko azken biztanle heroikoak, adibidez, garai luze batez espainiartasun egiazko zein eternalaren erakusgarri gisa hartu ziren numantino haiek, Irlandako gaelikoaren familia bereko hizkuntza zeltiko batean mintzatzen ziren. Penintsulatik aspaldian erabat desagertua dago, noski.

Ondoren, latina zabaldu zuten Erromatar Inperioko soldaduek bai Iberian eta baita Alpeetan ere, eta hartatik datoz Hego Tiroleko ladinoa eta Grisoien kantoiko erromantxera, hizkuntza bikiak. Iberiako artean gertatzen denaren antzera, oso gertuko senideak baitira gaztelania, katalana, aragoiera, galiziera-portugesera, astur-leonesa, eta abar.

Euskara dugu salbuespen aparta eta mundiala.



Alemana Alpeetan, orduan, hizkuntza erromantzeak baino mila bat urte geroago zabaldu zen.

Besteak beste, Reinhold Messner 1944an jaio zen Hego Tirol eskualdean, non dozenaka harri-meta trinko zeruetara altxatzen baitira, Lur planetako beste edonon ez bezala, bultzada teluriko zinez abrakadabranteetan.

Dolomiti.

XVIII. mendean haitzok ikertzen ibili zen Déodat Gratet de Dolomieu frantziar geologoak eman zien izena.

Lehen Mundu Gerraz geroztik, esan beharrik ere ez dago, Dolomitetan gehien zabaldu den hizkuntza italiera dugu. Ez bakarrik ladino erresidualaren bizkarretik, baizik eta baita aleman itxuraz ahalguztidunaren lepotik ere.

Hizkuntza kontuetan, estatuen indar letalaren erakusgarri.

Glotofagia etengabeak!

—Nola dakizue hori guztia? –galdetu zien, harridura dibertituaz, Sils (erromantxeraz, Segl) herriko gizonak bidaiariei, hogeit bat minutuz geroago eta laurak eserita zeudela goitik behera zurezkoa zirudien taberna bateko terrazan, laku ur opalozko bati begira.

—Euskaldunak gara! –erantzun zien bidaiari emakumeak Silseko senar-emazteei. Itxuraz brometan, nahiz eta serio antzean agertu nahirik, eta baita, badaezpada, tinko begiratuta ere.

—Euskaldun militanteak –gaineratu zuen gero, oso asertibitate txikiaz, gizon bidaiariak, hura zelakoan erabili beharreko tonua «militante» hitzaren balizko (are balistiko) gogortasun sonora leuntzeko. Baina ez zuen lortu, mendien arteko tiro hots baten modura, osteko oihartzunak

eta guzti, zabaldu baitziren «militante» hitzaren doinuak inguruan.

Bai solaskideen artean eta baita urrutirago ere, opalozko laku urdinaren ur gainean punpaka, harri zapalen antzera.

Gainera ez zen guztiz egia euskaldun militanteak zirenik, erdizkakoak baizik, gizon-emakume bidaiari euskaldun biak ez baitziren sentitzen garaiak eskatu bezalako –neurriko– militanteak, ez zeukatelako ongi barneraturik Euskal Herriko herritar ororen lehen betekizun moraletako bat progresiboki euskaraz bizitza zenik.

Sentipen horrek errudun sentiarazten zituen biak askotan, edo ia beti, zera ere agertzen zitzaielako begi-bistara guztiz garbi, Euskal Herriko egoera linguistikoa euskararen alde askoz ere gehiago behartu ezean, bai teorikoki –ideologia zabalduz– eta bai praktikoki –politikak gauzatuz–, laster gertatu behar zuela euskararen guztizko heriotza funtzionalak.

Horregatik, hain zuzen, gero eta gutxiagotan parte hartzen zuten euskarari buruzko eztabaidetan, euskaraz bizitzeko behar moralaren alde halako asertibitate handiz mintzatzen zirenen aurrean, haiek zalantzati eta ondorioz kritiko agertzeak errudun sentiarazten zituelako, euskararen beraren aurka ari balira bezala.

Elebitasuna iruzurra zela zabaldua zegoen, axioma gisa, euskalgintzarik aurreratuenean, elebitasun harmonikoa –bilinguismo justua– ezinezkoa zela eta ezinbestean hizkuntzarik ahulenaren heriotza zekarrela; Euskal Herriaren kasuan, euskararena... Eta bidaiariek ez zuten uste arestiko baieztapen makabroa okerra zenik ere, baina ez zuten gustuko horren arabera ia inorekin eztabaidan sartzerik, are gutxiago haserretzerik, bazituztelako, noski, espainolez oso gustura

bizi ziren lagun handi zein gertu-gertuko senide erdaldun nahiz euskaldun ugari, eta nahiko zuten azkena izango zen jende horri guztiari, ezagun zein ezezagunei, izan espainola izan euskara haien ama-hizkuntza, aukeran euskaraz bizi beharko zutela transmititu, edo gogorrago esanda, euskaraz progresiboki bizi ez baldin baziren etikoki modu ankerrean biziko zirela, eta tankera bereko mezu ejenplarizanteak.

Utikan, besteen bizimoduan halako intromisiorik.

Bibliak dioen moduan, «ez bainauzue nire anaiaren zaindaria».

Ez aipatzearren berebat, dena aipatzen hasiz gero, espainol hizkuntzaren bitartez bidaiariak beren baitan bizi-bizirik sentitzen zuten gustuko espainiartasuna, erabat logikoa, espainol hizkuntza primeran menperatzen zutelako, are euskara bera baino askoz hobeto, euskaldun askori gertatzen zaion bezala.

Guztiarekin ere, bikotea guztiz kontziente zen, haien esku izanez gero, bultzatuko zuten euskararen aldeko progresibitate erdua hain izango zela eskisitoa eta ahalik eta ez-agresiboena erdaraz bizi nahi zutenenganako, non Euskal Herriko arlo publikoaren euskalduntzea –zer esanik ez arlo pribatuarena– ez baitzen sekula santan gertatuko, motelaren motelaz.

Ezdeusaren ezdeusaz.

Horregatik nahiago zuten ez diskutitu.

Baina, hala eta guztiz ere, euskararen militante sentitzen ziren.

Normalean, euskara izaten zelako haien lehen hautu pertsonala, bai hitz egiterakoan eta baita –are inportanteagoa haientzat– pentsatzerakoan ere.

Euskalduna da... bere buruan euskaraz mintzo dena.

Bestela ez, edo ez modu benetan konputagarrian, euskaraz jakin eta kanporantz egin arren.

Aspaldi zeuden konklusio azalean bitxi nahiz sakonean logiko horretara ailegaturik, kasu gehienetan jendea identifikatzen delako, batez ere, buruan darabilen hizkuntzarekin, eta bertan sentitzen ziren bidaiari biak egiazki euskararen militante, euskaraz pentsatzen saiatzen zirelako beti, pentsamenduok askotan espainolez etortzen zitzaizkien arren.

—Euskalduna da... bere aukera linguistikoen gainetik bizitzen saiatzen dena!

Normala, esaten zioten elkarri, «gure inkontziente linguistikoa etengabe elikatzen ari delako, pasiboki, erdaraz parrastaka jasotzen ditugun mezuen bitartez... eta euskaraz, pasiboki, pixkaka baino ez zaigu unibertsoa barneratzen».

—Ondorioz, logikoa da euskaldunok mundua espainolez erraz erreproduzitu ahal izatea eta euskaraz ez horren aise.

«Ez bazara, bat, herri megaeuskaldun batean bizi... eta honezkero, 2016 urte honetan, oso gutxi dira bertan umeak eta batez ere nerabeak beren artean espontaneoki euskaraz ia beti mintzatzen diren bost mila biztanletik gorako herriak: Oñati, Markina, Ondarroa, Azkoitia, Azpeitia, Zumaiia, Orio... Gehiagorik bai?

»Zerrendatik kanpo leudeke Bermeo, Arrasate, Durango, Beasain...

»Zalantzan, Zarautz, Andoain, Bergara, Elgoibar, Mutriku, Gernika, are Lekeitio...

»Kontuan hartu ere ez, Eibar, Mungia, Ordizia, Hernani, Zumarraga, Algorta...

»Euskararen transmisioa frankismoan galdu zuten herrien artetik, geroztik zenbatek eman dio buelta tortillari, 2016an euskara bertako nerabeen artean hizkuntza nagusia bilakatu dela erakusteraino?

»Bakarrak: Oñatik (bidaiariek bazituzten iturri fidagarriak halakorik jakiteko).

»Euskarari nekez helduko diozu, esan bezala, ez bazara herri megaeuskaldun gutxi horietariko batean bizi, edo bi, ez bazaude bizimodua euskarari kontsagratu dioten norbanakoen artean, baina zenbatek egin dezake halakorik ogibidea bera euskararen inguruan antolatu gabe?»

»Badirudi gure balak agortzen ari direla.

Bidaiari euskaldunen arteko elkarrizketa harrotuak, Alpeetako errepideetan barna.

«Bost urte barru, 2021erako-edo, euskararen kolapsoa modu gordinean antzematen hasiko gara, azkenean. Onartu beharko baitugu (Irlandan aspaldian gertatu zen bezala) euskaraz adierazkortasunez komunikatzeko gauza beharko luketen belaunaldi berrietako euskaldun ugari, gehienak, linguistikoki linbo inespresibo batean deuseztatu zaizkigula.

»Jakina; euskaldun gehienek ez daukate euskararen kolapsoaren errurik ez kulparik, are gutxiago nerabeek».

Bidaiari euskaldunen pentsamendu azalean kritikoko zein sakonean autokonplazientek.

Izan ere, aitzakia besterik ez ote zen atariko guztia, subterfugioa, «pentsamenduaren bidezko militantzia» auto-aitortuaren kontu hura, muzin egiteko aurrera eraman beharreko militantzia zibiko-politikoari, norberaren baitatik kanpoko espazioak ere, hala publikoak nola pribatuak, Euskal Herrian euskaraz izan zitezen exijitzeko?

Bietako inork ez zuen halako salaketa batean zetzan egia ukatuko, bietako inork ez zuelako nahi izan, nerabazaroko gaztetxe garaiaz geroztik, Euskal Herriko bi konturik poto-loenetan, euskara eta independentzia, modu agerikoan militatu; hasieran ETAgatik, Euskal Herriaren askatasunaren izenean ETAk jende askoren kontra atentatzeak helburu teoriarik askatzaile haiek usteltzen zituelako, benetan usteldu ere, aipatu bi helburuon aldeko militantzia –euskara eta independentzia– modurik indartsuenean jorratzen zen zirkuluetan ia erabatekoa izaten baitzen ETArekiko kritikarik eza.

Gero, biak konturatu ziren nardagarria zitzaizela baita bortizkeriarik gabeko militantzia politikoa bera ere, Euskal Herrirako auzi katramilatsu eta minberatzat jotzen zituzten euskara eta independentzia, bi gai potolo haiei buruzko teorizazioak, haien ustez, era totalitarista eta ondorioz deskontsideratuan osaturik etortzen zirelako militantzia gotorraren zirkuluetatik, arrazoi osoaz jabetua sentitzen denaren fanatismoaz, dela euskararen auzian dela independentziarenean. Haiek biek ez zieten inolaz ere arrazoia ukatuko militante gotorrei, ondo uler bedi, Euskal Herriak beharko duelako izan, izango bada, euskaldun eta independentea, ados, baina bidaiari biek ez zituzten batere gustuko, konbentzimendu zilegi horren baitan, militantzia giro horietan hamarkadetan zehar garatutako teoria beregainak eta, are gutxiago, segurtasun onesgarri bezain itxi horrek kalera irrendakoan hartzen zuen ikonografia kolektibo militarra edo milizianoa, pertsona bakoitzeko gutxienez estandarte bana zegoela, arrazoia osorik gudan dagoelako eta dozenaka ikurrin tente haiek ezingo luketelako gezurrik esan.

Messnerrek sekula ez zuen banderarik eraman gailurretara.

Tira, egia da, semeak berak aitortua, Messnerren aitak begi onez ikusten zituela naziak...

Reinhold Messner; izen-abizen ezinago germaniarrak.

Ofizialki, herritar italiarra da, nahiz eta espedizio askotan, batez ere hasierakoetan, aleman eta austriarren konpainian abiatu ohi zen Himalaiara, lehen aldiz 1970ean Nanga Parbat-era, non anaia Gunter hil baitzitzaien gailurretik jaistean, eta jakina da nork zuzendu zuen espedizioa, Karl Maria Herrligkofer doktore mitikoak, pelikuletako gaiztoen itxura zeukan gizonak, zeinak bere lehen espedizioa 1934an antolatu baitzuen nazien laguntza osoarekin.

Kristo ederra izango du Messnerrek nazio kontuekin, gailurretara banderak eramaten hasteko moduan, koitadua.

Bidaiariak ere, urteekin, ezin zuten sinboloen gaineko estridentziarik jasan, eta iruditzen zitzairen inork eskuetan eramatea norbera baino altuagoa zen edozein ikur, arreta berarengan bildu zedila eskatzeko, halako sasi-sexu erakustaldi inkontziente hutsal eta handiputzen bat patetikoki gogora ekartzeaz bat, pertsona hori edo horiek munduaren aurrean hizketan etengabe garrasika aritzea bezalako zerbait ere bazela, guraso hezitzaile okerren menpe jatetxeetara sartu ohi diren ume oihulari jasangaitzen antzera; gurasoengandik batere errietarik ez dute jasoko, garrasika aritzeaz gain, ezta jatetxeko bezero eserien artean korrika hasten badira ere.

Kasu horietan, jatetxea berehala abandonatzen zuten bidaiariak, bertako arduradunari «ez daukagu zakarkeriarik zertan aguantatu» zeharkako hitzekin adierazita, eta baita, ahal zela, ume oihularien gurasoak, destainazko keinu hotz eta neurtuen bitartez, bidaiarien aldetik merezi zuten mespretxuaren jakitun eginez ere. Zoritxarrez, gero eta maizago

gertatzen ari zitzaien hura, bai Espainian eta bai Hego Euskal Herrian bertan ere. Baina, iparralderago joanez gero, askoz arraragoa izaten zen umeekin toki publikoetan halako arazorik izatea. Gainera, bereziki gogaikarria egiten zitzaien bieie ume oihulariak euskaraz aritzen zirenean, guraso euskaldun zenbaitengan bidaiariek inoiz detektatu izan zutelako halako nahikotasun jarrera bat, gaizki hezitako ume euskaldun oihulariei gurasoek halako pribilegio bereziren bat aitortu izan baliete bezala, jatetxean ziren pertsona helduen subkontzientea baliatuz, litekeena zelako jatetxean presente ziren heldu gehien-gehienen subkontzientean oso modu gotorrean zera gordeta izatea, mendeetan erreprimitutako hizkuntza bat izan zela euskara, eta badela, dudarik gabe, oraindik ere; baina, horren ondorioz, halako energia paralizanteren bat zabalduko zen jatetxean, kondizio normaletan ume euskaldun oihularien aurka, edo, hobeto esan, umeen matraka horren errudun ziren guraso euskaradun hezitzaile txarren aurka, egin nahiko luketen pertsona zentzudunak auto-isilarazteko.

Nahiz eta bidaiariei, esana dago, halakoek normalean ez zieten efektu paralizatzailerik eragiten, are modu gozagarriagoan animatzen baitziren biak jatetxeko arduradunaren aurrean salatzeraz ume oihularien gurasoen arrunkeria handia, eta klase eta mundu falta jasangaitza, batez ere umeak jatetxe-borrokan ari ziren euskaldunak zirenean, bidaiariek uste baitzuten euskararen kausari modu horretan ekartzen ziotela onurarik handiena, euskarak mundu errealean beharrezkoen zuen eta duen kategoria eskuratzen lagunduta, harrotasuna eta otzantasuna gurutzatzen diren tokian lortzearena.



Oñatiko Corpus egunean parrokia barruan dantzaren diren dantzariak nola, ahalguztidunaren aurrean harro bezain otzan.

Isil daitezela ume gaizki hezi horiek.

Tira, ba ote zegoen bidaiarien jarrera puntu baterainoko oldarkor berri horretan, ETAren horrore urteetan isilik-horrorearen aurrean beldurrak jota, noski- egon izanagatik, halako mendeku naif bat, oraingoan bai, hartu nahi bat?

Dena ETA da, adagio zaharraren hamaikagarren haragiztatzea...

Are ume euskaldun garrasizale sortzez puru eta maleziagabeak ere.

Seguru baietz, aitortu zioten elkarri behin baino gehiagotan modu erretrospektibo batez, zentzu intimoan hain zitzaielako nor bere buruaz lotsatzeko modukoa, guztiz laidogarria, are ignominioso, atentatuen horrore garai luze eta zorionez amaitutako hartan haiek biek, publikoki, ETAren ekintzen aurka sekula santan ezer egin edo esan ez izana, non erabat litekeena baitzen barne auto-erresumin mingots haren saltsan egosi izana, gerora bai, nahiz eta beranduegi, eta modu naif hartako, bidaiariak erakusten hasiak ziren estridentzia txikien aurkako irmotasun autoritario hura.

ETAren bukaeraz geroztik, 2011-16 urteotan, euskal erresistentzia, izan biguna izan gogorra, aje edo biharamun garai betean eta gorrian zegoen, alde zuzen edo moldez. Zenbateraino errazten zuen ETAren porrotak bidaiari biek lozorroan edo ezkutuan ezkerreko abertzaletasunaren aurka gordetako gorroto zantzuak, orain bai, azalera? Askotan egin zioten elkarri arestiko galdera eta maiz aztertu zuten

auzia, ongi zehaztu nahi zutelako, ezkerreko abertzaletasunaren estridentzia teoriko eta estetikoaren aurka biek sentitzen zuten higuin moduko hura ez ote zen, egiatan, beren berezko jite erreakzionario eta atzerakoiaren erakusgarri, kontra-iraultzaileen ohiko ezaugarria.

Muturreko zibismoz mozorrotzen den kontserbadurismo autoritarioa, azken batean. Baina biek onartu arren baietz, bete berri zituzten berrogeita hamar urteak bete ostean, edade ustez eta karka horretara ailegaturik, errazago zitzaiela euskararen nagusitasunerako zein Euskal Herriko independentziarako diskurtso haietan (sozialismoaz hobe ez hitz egitea ere) ez bakarrik fanatismoa antzematea, baizik eta beren buruari, espanturik gabe, zera aitortzea, ez zutela balio intrintseko handiagorik ikusten eskuin edo zentroko hautu halaber abertzalearen diskurtsoetan baino. Baina, hala eta guztiz ere, horrearen osteko azterketa politikoa egiterakoan, bidaiariak beti saiatzen ziren duda nagusiari heltzen, zeinaren arabera litekeena baitzen ezker abertzalearen ertz legitimistenetik zetorren corpus teorikoak pisua galdu izana ETAk bere gerra galtzarekin batera, eta kito. Izan ere, modu erabat alderantzizkoan hartuko ziren kontu teoriko legitimista haiek, agian masiboki erabat onartuak izateraino, ETAk bere gerra irabazi izan balu, gerra irabazten duenak, jakina denez, errelatoaren jabe izatea ere irabazi ohi duelako.

Euskal Herri euskaldunaren askatasun kolektiborako bide zuzen nahiz malkartsua erakustegatik, orduan, betidanik ote zioten bidaiariak herra, bada, egiazko abertzaletasun engaiatu edo konprometituari?

Galdera ona.

Haien bien sortzezko izaera euskalduna, egia onarrazteko akuilu eta eztena; jasangaitza ala laketgarria izango zitzaizen bidaiariei aitortu behar izatea Espainian bai bizi zirela goxo eta ez beti eraikitzeaz zirudien Euskal Herriaren aldeko militantzian?

Likidazionismoan goxo, bizi ere.

Moralismo abertzaleak ezin bazterturiko konpromisoa eskatzen zien biei, argudio sendo eta oso ulergarrien bitartez, baina trukean amorragarria izango zitzaizen beren burua utzikerian antzeman, eta Euskal Herriaren alde ez, baizik eta nolabait kontra ari zirela aitortu behar izatea. ETA indarrean izan zen bitartean, bidaiarientzat askoz errazagoa suertatu baitzen kontzientzia-eskapismoa baliatzea, gatazka armatuak auzi identitarioa paroxismo guttiz higuigarri eta konprensiboki ebitatu nahi izateko moduko batera eramaten zuelako, baina ETAREN porrotarekin, azkenean, garaia ailegatu zen norik bere buruaren definizio argiagoa egiteko –euskalduna, espainola edo euskaldun-espainola–, eta esan gabe doa, modu intimo eta nolabait ezkutukoan, hirugarren definizio –edo indefinizio moduko horretan– sentitzen zirela bidaiariak benetan gustuen.

Lehen aukerarekiko sentitzen zuten puntu baterainoko engaiamendu emozionalak guttiz lasai bizitzen uzten ez ziren arren, euskaldun sortu izanagatik ez ezik, Euskal Herriaren aldeko justizia erretrospektiboaren izenean.

Euskaldun bipolarrrak ziren... Eta nor ez?

Bidaiariei erabat ulergarria zitzaizen abertzale askoren espainiartasun kultural erabatekoa, adibidez, baita guttiz barkagarria ere kondeszendente –etorkor– jartzen zirenean, eta pentsatzen zuten abertzaleei exijitu beharreko euskal

koherentzia kulturala bera *nonsense* moduko bat ez ote zen, ia edonori kontrako eztarritik joaten ahal zitzaion zerbait, abertzale gehienei barne.

Nola ez zieten, ba, barkatuko.

Euskararen zabalkundea ez baitzen, gertuko adibiderik ikusgarriena aipatzearren, katalan hizkuntzarena bezain modu arrakastatsuan gertatu, baina euskararekin jasotako porrota bidaiariak logikotzat jotzen zuten; eta iruditzen zitzaien, gainera, katalanaren zabalkunde itzela ez zegoela, merezimenduz, euskararen zabalkunde pattalaren gainetik, katalana eta gaztelania, jatorrira joaz, Iberia posterromatarreko –hau da, Hispaniako– oso-oso hizkuntza antzekoak zirelako eta direlako, ia hizkuntza berbera ez esatearren, eta erraz-errazak, batean dabilen hiztuna bestean aritu behar izanez gero.

Antzekoagoak haien artean Arratiako eta Aezkoako euskalkiak baino.

—Estatu batekin, agian, bizkaiera ez da salbatuko; baina Estaturik gabe, ziur ezetz.

Jajaja... Euskal bidaiariak gustuko zuten «hizkuntza bat Estatu bat» bezalako ideiak birrintzen saiatzea ere, sarkasmotik. Euskaingintzan nagusi ziren axioma sakro-saindu zenbait, bidaiarientzat aski antipatikoak.

Ez zuten segitu behar, beraz, euskararen zabalkundearen porrotagatik euskaldunak beren burua jipoitzen, euskaldunentzat arrakasta erdiestea, berez, askoz zailagoa izan zelako, abiapuntuan eta ondoren.

—Euskara modernoa batu eta garbitu orduko, oso berandu ibili ginelako. Euskal Herrian espainola eta frantsesa esparru komunikatiboen jabe oso aspaldian eginik zeudela.

Katalana errazago konpaktatu da espainolaren oso antzekoa delako, espainola bera bilakatu baita sarbide komodoa katalan hizkuntzan barneratzeko.

Gustura gelditzen ziren bidaiariak, batez ere gizona, halako hausnarketa bonbastikoak bota eta gero, hausnarketotarako oinarriak normalean emakume bidaiariak emandako informazioetatik bazetozen ere.

Katalanek dena askozaz ere errazago, bai horixe, are lurraldeari berari begiratuz gero: mundu osoan ezagutua eta miretsia da Bartzelona europar hiriburu handi egiazkoa, ezen ez Bilbo bezalakoa, mesedez, herri puztu ahobero hori... eta to Costa Brava eta to Baqueira, Països Catalans delakoen beharrik gabe.

Estatu independente gisa, Kataluniak baluke erakargarritasun osoa edonorentzat, bai idiomatikoki bai territorialki; Euskal Herrian, berriz, Gipuzkoako hiruzpalau bailara eta Bizkaiko beste pare bat kenduta, gainerako ia guztia entelekia idiomatiko zein territorial difusoa besterik ez da, non ezker abertzalearen euskararen berreskurapenerako zein lurralde-batasun osorako maximalismoak, ezinbestean, intromisio autoritario modura ez ezik, baita estrafalariotzat ere har litezkeen, gogora ekarrita bidaiariek, jajaja, herri nafar zerealista eta jotero hartako plaza nagusian, bien pasmo zein harridurarako, joaldunak eta Tartalo bateraturik ikusi zituzten eguna, a zer-nolako horterada, baina ezin halakorik sujeritu herri zerealista eta jotero hartako jai-batzordeko kide aberztale euskaldunden aurrean norbera antieuskaldun agertu gabe, hura zelakoan, hango batzuentzat, zabaldu beharreko Euskal Herri egiazkoa, etsaiek euskalduntasuna, baita sinbolikoki ere, ebatsitako ingurune eta biztanleen eremuan.

Handia, beraz, kausari uzteko tentazioa.

Hasieran bidaiariak ez ziren guztiz kontziente izaten zergatik sentitzen ziren hain gustura Palentzian edo Kantabrian, behin batean konturatu ziren arte asteburu pasa bertan egin eta estridentziarik gabe denak bere lekuan zirudiela, Segoviako Cantalejo izeneko herriko taberna batean gosaltzen ari zirela, ostatua bertan hartuta, ondoko Sepúlveda turistikoagoan lekurik aurkitu ez zutelako, Hoces del Duratón delako arroilan piraguan ibili eta biharamunean.

Gaztelako herri anonimoetan 70eko hamarkadan eginiko kafetegi modernoek normaltasun *kitsch* erosoaz disfrutatzen, kafesne, laranja zumo eta kruasana plantxan, *El Adelantado* irakurriaz eta Amaral edo Cecilia tabernako irratian.

Dena on, eder eta merkea.

Gerra Zibilik gertatu izan ez balitz bezala.

Gero, autora sartu eta Peñafiel herrirantz abiatu, bigarren edo hirugarren mailako errepidetxo bakartiak hartuta, lautada itxuraz mugagabeen.

Radio 3ren monografikoa entzunez, bere buruaz beste eginiko Hilario Camacho kantariari buruz ari direla.

*Cuando se acostaba el sol  
Saliste al campo, Dolores.  
Esperabas ver a tu amor,  
Y encontraste solo flores.*

Krisi arteko Espainiako urte loriatsu haiek, ai ene, zein ongi bizi zen Espainian orduan.

Peñafieleko gazteluaren azpian, martini pare bat igande eguerdiz, *summertime and the livin is easy*, baina igande eguerdiz ere korritu behar, marka da gero, Behobia-Donostia herriko-agonikoa, intentsuak eta ez-eklektikoak euskaldunok, are gehiago sorkuntzan, erresistentziarako oihu ezinbestez estridentea euskaldun arrakalatuona, azkenean *kitsch* ere bilakatzeko, beste edonoren antzera (nahiz eta gurea pretentsioduna), Tartalo bezala Miranda de Argan, teoriar euskaldun menperatuen eguneroko existentzia zanpatua erredimitzera letorkeena, nahiz eta praktikan haren presentziaren egokitasunarekin bat ez datozen herri zerealista eta joteroko biztanle arruntak juzgatzera ailegatua den, egia errebelatuaren baitatik.

*Erruduna sentiaraztea zenuen lege...*

Esan ohi da tratu txarrak jasandako askok tratu txarrak erreproduzitzeko joera izango dutela aurrerantzean.

Tutera mairuek sortu zuten eta geroztik erromantzearen eremua izan da. Bertan moralki euskara besarkatu beharra dagoela sinestea ere...

Euskaldun engaiatua beti justu eta ekuanimea omen.

Are, beste norbaiti kokotean tiroa ematen dionean.

Autokonplazentzia infinituan.

Oso gustuko zuten bidaiariek euskal supremazismotzat jotzen zutena txikitzen-edo ibiltzea, trukean egiazko humanismoaren alderdian sentitzen baitziren, Euskal Herriko edozein pertsonaren alde eta ez entelekia batzuen morroi.

Abiapuntu moral ez-humanista horiek, gainera, erabat ezinezko bilakatzen zutelako, paradoxikoki, kontrakoaz ere gozatzea.

Hots...

—Norberaren existentziaren gaineko ikuspegi edo zentzu aristokratikoaz.

Milanon alokatutako bi plazadun Maserati deportibo gorri batez ailegatua zegoen berrogeita hamar urte inguruko bikote bidaiari euskalduna Goi Engiagina munduko mendi gunerik eksklusiboenetakora.